

5.maila - BURUZ EGITEKO PROBLEMAK-1. zatia

Saiatu zaitez buruketa hauek ahalik eta azkarren egiten papera eta arkatza erabili gabe.

- (1) 3 mahai daude eta bakoitzean 5 neska. Gainera, mahai bat dago 3 neskarekin. Zenbat neska daude guztira?

_____ neska

- (2) Atzo masustak hartzera joan ginen. Nik 17 hartu nituen eta anaiak 11 jan zituen. Zenbat masusta gelditu zitzaizkidan?

_____ masusta

- (3) 40 zentimoko borragoma erosi nuen eta euro bateko txanponaz ordaindu nuen. Zenbat itzuli zidaten?

_____ zentimo

- (4) 4 pospolo behar ditut karratu bat egiteko. Zenbat pospolo beharko ditut 4 karratu egiteko?

_____ pospolo

- (5) Neskak mutilak baino 2 gehiago dira. 6 mutil badaude, zenbat pertsona daude guztira?

_____ pertsona

- (6) Anaiak 7 intxaur ditu, arrebak 15 eta nik 10. Zenbat ditugu hiruron artean?

_____ intxaur

- (7) Auzokoak egunero 6 km egiten ditu. Zenbat egingo ditu 30 eguneko hilabete batean?

_____ kilometro

- (8) Amak 10 perretxiko hartu ditu eta nik bikoitza. Zenbat perretxiko hartu ditugu bion artean?

_____ perretxiko

- (9) Antzokian 450 eserleku daude. Haietatik 150 okupatuta badaude, zenbat geratzen dira libre?

_____ eserleku

- (10) Zenbat hilabete daude 2 urtetan?

_____ hilabete